AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3607

AGINDUA, 2011ko ekainaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Maria Aranzazu Unanue Muñoa andrea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzen duena.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako epaia betez, Agustin Iridoi Olaizolak, Mateo-Antonio Stefania Sastrek, Tomas Vivas Jaureguik, Iñigo Unzueta Mugarzak, Miren Itziar Ecenarro Camarak eta Maria Aranzazu Unanue Arrilagak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2004ko 500 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruz 2007ko otsailaren 16an emandako epaiaren kontra jarri duten 2210/07 kasazio-errekurtsoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak 2011ko apirilaren 18ko ebazpena eman zuen. Ebazpen horren bidez Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2004ko urtarrilaren 7ko ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait irakaskuntza-kidegotara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuan selekzionatutako hautagaien zerrenda argitara eman zuen 2003ko uztailaren 28ko ebazpena aldatu zuena, aldatu zen. Ondorioz, María Aranzazu Unanue Muñoari (2. abizenaren aldaketa egin da) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan selekzionatutako hautagaien artean sartzen zaio, Teknologiaren espezialitatean, txanda librean eta 2. hizkuntz eskakizunarekin, 13,7200 punturekin.

2002ko azaroaren 8ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait irakaskuntza-kidegotara sartzeko aukeratze-probak deitu zituenak, 11.1 oinarrian xedatutakoaren arabera, eta exijitutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Maria Aranzazu Unanue Muñoa andrea Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, Teknologia espezialitatean, txanda librean eta 2. hizkuntz eskakizunarekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozedura gainditu izanaren ondorioz.

Bigarrena.- Praktiketako funtzionarioaren izendapenak emandako destinoaz jabetzen denetik aurrerako ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu.

Hirugarrena.- Indarreko legeriak praktiketako funtzionarioentzat xedatutakoa izango da agindu honen bidez izendatutako funtzionarioaren erregimena.

Laugarrena.- Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari ematen zaio agindu hau gauzatzeko behar diren argibideak emateko ahalmena.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epai hau gauzatzeko tramiteetan plantea daitekeen edozein gai ebazteko ahalmena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.